



EBAZPENA, Hezkuntza sailburuordearena, 2016 abuztuaren 29koa, 2016-2017 ikasturtean proiektu funtsean hirueledunak (eta eleaniztunak) garatuko dituzten Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxe publikoetako irakasleek hizkuntzen tratamendu integratzaile eta integralari buruzko prestakuntzan parte hartzeko bete beharreko baldintzak ezartzen dituena.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsitako "Heziberri 2020" Planak Europako markoak 2020rako ezarritako berrikuntza eta garapenerako ildo estrategikoak elkartzeko asmoari erantzuten dio, hezkuntza eta prestakuntzari dagokienez eta gure testuinguru eta ingurunearen berezko hezkuntza-erronkak kontuan hartuta. Plan horretan sartuta dago "Hezkuntza-eredu pedagogikoaren markoa", hezkuntza-eredu pedagogikoaren ildo nagusiak jasotzen dituen proiektua. Proiektu horrek paradigmaren aldaketa garrantzitsua dakar; izan ere, gaitasunetan oinarritutako hezkuntza planteatzen du. Gaitasunen arabera pedagogiaren ikuspegiaren ezaugarria hau da: eskuratutako ikaskuntzak transferitzea, bideratzea eta konbinatzea egoera funtzional konplexuak konpontzeko.

Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duen abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuaren arabera, hauek garatu behar ditu Oinarrizko Hezkuntzak modu integratzean: pertsonaren gaitasunak, eta norberaren errealizazio eta garapenerako bizi osoan zehar behar dituen oinarrizko gaitasunak, herritar aktiboak, gizarteratzea eta enplegua lortzeko. Era berean, zehazten du ikasleek, Oinarrizko Hezkuntza amaitzerako, hezkuntza-xedeak betetzeko eta bizitzaren esparru eta egoera guztietan moldatzen jakiteko oinarrizko gaitasunak bereganatu behar dituztela.

Eta ikasleek aipatutako oinarrizko gaitasun hori lortzeko, euskal hezkuntza-sistemako irakasleek gaitasun-profil egokia eduki behar dute, baldintza onenetan bete ahal izateko beren egitekoak eta lanak. Horrela bada, irakasleen prestakuntzaren helburua da behar den gaitasun-profila erdiestea ikasleek irteera-profilean ezarritako gaitasunak eskura ditzaten, eta hezkuntza arloan eskumena duen sailak bultzatutako prestakuntza-jardueraren ezaugarriak izango dira, besteak beste, irakasleak prestatzea eta eguneratzea, bikaintasuna sustatzea hezkuntza berriztatzeke proiektuak bultzatuz eta profesionalen arteko lankidetzaren prozesuak laguntzea (berdinen arteko prestakuntza, sareak sortzea).

Ikasleen irteera-profilearen oinarrizko gaitasunen artean, batzuk *zeharkako edo generiko* gisa definitzen dira, arazoak konpontzeko edo bizitzako hainbat egoerari aurre egiteko beharrezko direnak. Beste batzuk, berriz, *espezifikokoak* dira, diziplina-alor batekoak edo batzuetakoak. Zeharkako gaitasunetako bat da ahozko komunikaziorako, ahozkoa ez den komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna, eta, diziplina barrukoaren artean, berriz, hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna dago.

Aipaturiko abenduaren 22ko 236/2015 Dekretuak oinarrizko zeharkako gaitasuntzat hartzen du ahozko zein ahozko ez den komunikaziorako eta komunikazio digitalerako gaitasuna, horiek guztiak modu osagarrian erabiliz ganoraz eta egoki komunikatu ahal izateko egoera pertsonal, sozial eta akademikoetan. Eta diziplina barruko oinarrizko gaitasuntzat hartzen da hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako gaitasuna. Gaitasun horren helburua da ahozko eta idatzizko testuak –euskaraz, gaztelaniaz eta atzerriko hizkuntza batean edo gehiagotan– erabiltzea, hizkuntza-aniztasunarekiko modu egokian, eraginkorrean eta adeitsuan komunikatzeko, bizitzako hainbat egoeratan, bai eta



literaturaren inguruko hezkuntza bat garatzea, norberaren burua eta inguratzen gaituen mundua hobeto ezagutu ahal izateko.

Gainera, dekretu horretan ezartzen denez, hezkuntza-eskumenak dituen sailak elebitasuna bultzatuko du hezkuntza eleaniztun baten barruan, uneko hizkuntza-ereduak hobetzen eta garatzen laguntzeko. Horretarako, lehentasunezko tratua bermatuko da euskararentzat, bi hizkuntza ofizialen erabilera sozial desorekatua konpentsatzeko, ikasleek Oinarrizko Hezkuntza amaitzen dutenean komunikazio-gaitasun praktikoa eta eraginkorra izan dezaten euskaraz nahiz gaztelaniaz, eta atzerriko lehen hizkuntzan ere oinarrizkoa. Hori guztia, atzerriko bigarren hizkuntza batean oinarrizko ezagutzak lortzeko aukera baztertu gabe, Hizkuntza-proiektuan hala jasoa duten ikastetxeetan. Hizkuntzen trataera integratua eta integrala ere bultzatuko da.

Hori guztia, honako hauetan jasotako xedapenak betetzeko: 10/1982 Legea, azaroaren 24koa, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa; 1/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Eskola Publikoari buruzkoa; eta 138/1983 Dekretua, uztailaren 11koa, Hezkuntza eta Kultura Sailarena, Euskal Herriko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzan hizkuntza ofizialen erabilera arautzen duena –horiek osatzen baitute EAEko hizkuntza-arloko araudia–; eta, era berean, duela gutxi argitaratutako 236/2015 Dekretua betetzeko ere, zeinaren bidez Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen baita (EHAA, 2016ko urtarrilaren 15koa).

Testuinguru horretan, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak, 236/2015 Dekretu horren bosgarren xedapen gehigarria betetzeko, EAEko hezkuntza-sistema hobetzeko plana onartu du. Plan horretan, euskal hezkuntza-sistema osoa zuzentasunaren eta kalitatearen aldetik bikaintasunerantz joateko neurri guztiak jasotzen dira, eta, bertan, garrantzi berezia izango dute kompetentziaren araberako eredia aplikatuz Oinarrizko Hezkuntzaren helburuak lortzeko estrategiek. Hobetzeko plan horretan jasotzen diren bi ildo estrategiko dira "Hezkuntza-komunitatearen prestakuntza" eta "Elebitasuna hezkuntza eleaniztun baten barruan". Unibertsitateaz kanpoko irakasleen etengabeko prestakuntzarako 2014-2017 aldirako Prest_Gara Planaren lehentasunezko jardun-ildo bat ere bada. Nazioarteko ikerketek bat egiten dute esatean aldaketaren eragile nagusi baten, hau da, irakasleen mende dagoela hezkuntza hobetzeko asmo duen ekimen oro, irakaskuntzaren kalitatearen hobekuntzaren mende baitago hezkuntzaren kalitatearen hobekuntza. Eleaniztasunaren barruan, ebidentzia guztien arabera, lotura estua dago curriculumean ingelesez emandako ordu-kopuruaren eta ingeles-mailan lortzen den aurrerakuntzaren artean, eta antzera gertatzen da euskararekin. Gainera, curriculumeko edukiak atzerriko hizkuntzan emanaz, nabarmentzekoa da atzerriko hizkuntza horren hizkuntza-kompetentzia aurrera egitea lortzen dela, baina baita oinarrizko beste kompetentzia batzuetan ere.

Curriculumeko irakasgai bat atzerriko hizkuntzan ematea pixkanaka orokortu arte, eta hezkuntza eleaniztun baten esparruan elebitasuna sendotzeko helburuz, beharrezkoa da ikasleen hizkuntza-gaitasuna hobetzea. Eta, horretarako, atzerriko hizkuntzako irakasleen prestakuntza ere hobetu behar da, bai eta hizkuntzen tratamendu integratuari eta integralari dagokionez, hasierako egoerarekin alderatuz gero aldaketa nabaritu ahal izateko. Horregatik da hain garrantzitsua irakasleek prestakuntza jasotzea eta kontzientzia hartzea, ematen duten ikasgaia edozein dela ere, irakasle guztiak hizkuntza-irakasleak direla barneratzeko.



Horrenbestez, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuan xedatutakoaren eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenetan ezarritakoaren arabera,

EBAZTEN DUT:

1. artikulua. – Xedea

1. Deialdi honen xedea da 2016-2017 ikasturtean hizkuntzen tratamendu integratuaren eta integralaren inguruko prestakuntza espezifikoan parte hartu nahi duten irakasleentzat eskaera- eta hautaketa-prozedura ezartzea.

2. Helburu hori lortzeko, eta, oro har, parte-hartzaileen banakako matrikula ordaintzeko, 150.000 euro bideratuko dira Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan horretarako ezarritako aurrekontu-partiden kontura.

2. artikulua.- Hartzaileak

1. Deialdi honen hartzaileak dira 2016-2017 ikasturtean hizkuntza-proiektu funtsean hirueledunak (eta eleaniztunak) garatuko dituzten ikastetxe publikoetako irakasleak. Ikastetxe publiko horiek esleipendun gisa ageri dira Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendariaren 2016ko ekainaren 3ko Ebazpenean, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxe publikoei buruzkoa, funtsean proiektu hirueledunak (eta eleaniztunak) garatzeko eta proiektu horien ondoriozko atzerriko hizkuntzan prestakuntza jasotzeko.

2. Matrikulak ordaintzeko aurreikusitako zuzkidurak agortuko ez balira, hizkuntzen tratamendu integratu eta integralari buruzko prestakuntza jaso ahal izango dute, halaber, Berritzegune Nagusiko eta zonetako Berritzegunetako hizkuntza-aholkulariek, baldin eta haietan proiektu eleaniztunak garatzen dituzten ikastetxeak badaude eta lehenago aipatutako ekainaren 3ko Ebazpenean esleipendun gisa agertzen badira.

3. artikulua.- Eskakizunak

Ikastetxe eskatzaileek Hezkuntza Berriztatzeko zuzendariaren 2016ko ekainaren 3ko ebazpenean esleipendun gisa agertu behar dute. Horren bidez ebatzen da Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxe publikoei hizkuntza-proiektu funtsean hirueledunak (eta eleaniztunak) garatzeko eta, proiektu horiei lotuta, atzerriko hizkuntzako prestakuntza jasotzeko egindako deialdia.

Bestetik, prestakuntzan parte hartzeko ikastetxeak proposatzen duen irakasleak 2016-2017 ikasturtean garatuko den proiektu eleaniztunean parte-hartzaile gisa agertu behar du, ahal dela, proiektuaren koordinatzaile gisa edo edukiak atzerriko hizkuntzan ematen duen irakasle gisa. Gainera, ikastetxean eduki behar du esleitutako lanpostua 2016-2017 ikasturte osorako.



4. artikulua. – Eskaeren aurkezpena

1. Ikastetxeek 2016ko irailaren 13 arteko epea, egun hori barne, izango dute eskaera aurkezteko.

Eskaerak bide elektronikoz aurkeztuko dira, osorik eta behar bezala betetako eskabide normalizatu baten bidez. Eskabide-eredua euskadi.net webguneko egoitza elektronikoko honetan egongo da eskuragarri: <https://educacion.hezkuntza.net/group/deialdiak/hizkuntzen-trataera-integratua-2016>

2. Ikastetxe interesdunak eskaerari erantsi beharko dio dokumentu bat prestakuntza-jardueran parte hartuko duten irakasleen datuekin, 1 Eranskinean adierazitako ereduarekin bat etorriz, eta bertan adierazi beharko dute ikastetxean zein zeregin esleitu zaizkien irakasle horiei proiektu eleaniztuna garatzeko, eta atzerriko hizkuntzan zein ezagutza-maila eta zein ziurtagiri duten. Hiru parte-hartzaile proposatu ahal izango ditu ikastetxeak, lehentasun-hurrenkeraz, bi titular eta ordezeko bat.

3. Berritzegune Nagusiak eta zonako Berritzeguneek, berriz, pertsona bakarra proposa dezakete prestakuntza egiteko, II Eranskineko ereduarekin bat.

4. Aurkeztutako eskaeran akatsen bat, datu ez-zuzenen bat edo agiriren bat falta dela ikusten bada, 10 eguneko epea emango zaio ikastetxe eskatzaileari, arazoa zuzen dezan.

5. artikulua.- Parte-hartzaileen aukeraketa

- 1.- Hizkuntzen tratamendu integratuaren eta integralaren prestakuntzako matrikula zein irakasleri ordainduko zaion erabakitzeke, aztertuko dira eskakizunak betetzen dituzten ikastetxeetako eskaerak eta dagokion epean aurkeztu ote diren bide elektronikoa erabiliz. Lehenengo, eta artikuluko honetako 2. zenbakian adierazitako baztertzeko arrazoirik ez badago, ikastetxe eskatzaile bakoitzak titular gisa proposatutako irakasleak hautatuko dira. Gero, oraindik zuzkidura ekonomikorik badago eskaera gutxi egon delako edo hautagaietako batzuek ez dituztelako eskakizunak betetzen, ordezeko gisa agertzen diren irakasleen artean hautaketa egingo da. Horretarako, irizpide hauek eta adierazitako hurrenkeran hartuko dira aintzat:

- Proiektu eleaniztunean ikasle kopuru handiena duten ikastetxeetako irakasleek izango dute lehentasuna
- Berdinketa egonez gero, lehentasuna emango zaie bekadunen ehuneko handiena duten ikastetxeei.
- Berdinketak bere horretan jarraitzen badu, ebazteko, irakasle bakoitzak zerbitzuan eman duen denborari erreparatuko zaio.

Hirugarrenik, oraindik ere zuzkidura ekonomikorik geldituz gero, zonako Berritzeguneetako hizkuntza-aholkulariei matrikula ordaintzeko erabiliko da, eta lehentasuna emango zaie euren zonen barruan proiektu eleaniztun onartuak dituzten ikastetxe gehien dituzten Berritzeguneei, Hezkuntza Berritatzeko Zuzendariaren 2016ko ekainaren 3ko ebazpenaren arabera.

- 2.- Prestakuntza-jardueretan parte hartzeko eskaerak hautatze-prozeduratik kanpo geldituko dira kasu hauetan:



- Ikastetxe eskatzailea ez bada esleipendun gisa agertzen Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariaren 2016ko ekainaren 3ko Ebazpenean, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikastetxe publikoei hizkuntza-proiektu funtsean hirueledunak (eta eleaniztunak) garatzeko eta, proiektu horiei lotuta, 2016-2017 ikasturtean atzerriko hizkuntzako prestakuntza jasotzeko egindako deialdian.

- Ikastetxeak proposatutako irakaslea ez bada agertzen ikastetxearen proiektu eleaniztunean.

- Ikastetxeak proposatutako irakasleak ez badauka esleitutako lanposturik ikastetxe horretan 2016-2017 ikasturte osorako.

- Ikastetxeak proposatutako irakasleak zehapen penala edo administratiboa jasotzeagatik diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera galduta badu edo horretarako gaitasuna kentzen dion legezko debekurik badu, sexuagatik diskriminazioagatik eragindakoak barne, betiere Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen arabera.

6. artikulua. - Prozedura ebaztea

1. Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariak ebazpen-proposamena emango du, eta bertan agertuko dira:

- Onartutako eskaeren proposamena, ikastetxe bakoitzak prestakuntza espezifikoa plaza bat hartzeko proposatutako irakasleen zerrendarekin, eta, hala badagokio, Berritzeguneetako hizkuntza-aholkulariena.

- Baztertutako eskaera-proposamena, arrazoa aipatuz.

2. Ebazpen-proposamena jakinaraziko zaie ikastetxe eskatzaileei (eta Berritzeguneei, hala badagokio) Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren webgunearen bidez eta posta elektronikoko bidez zuzendariari, eta hamar egun naturaleko epea izango dute alegazioak aurkeztu ahal izateko.

3. Alegazioak aztertu ondoren, Hezkuntza Berritzatzeko zuzendariak behin betiko ebazpena emango du, eta eskatzaileei jakinaraziko die aurreko atalean aipatutako bideak erabiliz. Ebazpenak jasoko du, batetik, irakasleen zerrenda (eta aholkulariena hala badagokio), ikastetxearen arabera ordenatuta; eta, bestetik, baztertutako eskaeren zerrenda, arrazoa aipatuz.

4. Prozedura ebazteko eta jakinarazteko epea, gehienez ere, sei hilabetekoa izango da. Epe horretan jakinarazpenik eman ezean, eskabideak ezetsi egin direla ulertu ahal izango da, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 44. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

12. artikulua. – Ziurtatzea

Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzak ofizioz egiaztatuko die parte hartzen duten irakasleei banaka prestakuntza-orduak probetxuzkoak izan direla, betiere bertaratzea ordu-kopuru guztiaren % 80 baino handiagoa izan bada eta jardueran programatutako zeregin guztiak bete baditu. Horretarako, prestakuntza bukatutakoan, erakunde emaileari eskatuko zaio parte-hartzaileak gai direla egiaztatzen duen akta bat.



19. artikulua.- Datuak babestea

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan eta Datu Pertsonalen Fitxategi Publikoei eta Datuak Babesteko Euskal Agentzia sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean ezarritakoarekin bat etorriz, deialdi honetan parte hartzen dutenek baimena ematen dute deialdi hau izapidetzean jasotako datu pertsonalak tratatu eta argitaratzeko. Datuok, bestalde, "Ziurtagiriak" 5. fitxategia izeneko fitxategi batean sartuko dira, deialdi hau kudeatzeko eta deialdi honetan parte hartzen dutenei deialdiaren garapenaren berri emateko. Fitxategi horren arduraduna Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza da. Datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko, ezerezteko eta horien aurka egiteko eskubideez baliatzeko, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzara jo beharko da, honako helbide honetara: Donostia kalea 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abuztuaren 29a.

Hezkuntzako sailburuordea
ARANTZA AURREKOETXEA BILBAO



I. ERANSKINA

IKASTETXEAREN DATU OROKORRAK:

IKASTETXEAREN KODEA

--	--	--	--	--	--

	Lehen Hezkuntza	DBH	Batxilergoa
Ikastetxeko ikasle-taldeen guztizko kopurua			
Proiektu eleaniztunean parte hartzen duten ikasleen kopurua guztira			
Irakasleen kopurua guztira			
2016-2017 ikasturterako proiektu funtsean hirueledunean (edo eleaniztunean) parte hartuko duten irakasleen kopurua			
Atzerriko hizkuntzan B2 mailako titulazioa edo goragokoa ziurtatu duten irakasleen kopurua			
Atzerriko hizkuntzaren bat irakasgai gisa duten irakasleen kopurua			
Irakasgairen bat atzerriko hizkuntzan ematen duten irakasleen kopurua (aurreko atalekoak kanpo utzita)			

PRESTAKUNTZA-JARDUERARAKO PROPOSATUTAKO IRAKASLEAK

Proposatutako irakasleak (Izen-abizenak)	Proiektuan esleitutako zereginak	Atzerriko hizkuntzaren maila edo ziurtagiria (ingeleza)
Titularrak		
1		
2		
Erreserbak		
1		



II. ERANSKINA

BERRITZEGUNEARI BURUZKO DATU OROKORRAK

KODEA

--	--	--

	Lehen Hezkuntza	DBH	Batzilergoa
Berritzegune hori erreferentziatzen duten ikastetxe publikoen kopurua guztira			
'Eleaniztasunerantz 2016-2017' deialdian parte hartzen duten zonako ikastetxe publikoen kopurua guztira			

PRESTAKUNTZA-JARDUERARAKO PROPOSATUTAKO IRAKASLEAK

Proposatutako aholkularia (Izen-abizenak)	Berritzegunean esleitutako zereginak	Atzerriko hizkuntzaren maila edo ziurtagiria (ingeleza)
1-		